

Udal honetako Osoko Batzarrak, 2008ko abenduaren 19an egindako bilkura ohiz kanpokoan, besteak beste, ondoko hau erabaki zuen:

2.- ONESPENA EMATEA “A-1 OKENDO INTERBENTZIO URBANISTIKORAKO AREAN UDALETXEA BERRITZEKO ETA HANDITZEKO LANAK” PROZEDURA IREKIAN, ESKAINTZA EKONOMIKOKI ONURAGARRIENAREN ARABERA ETA ADJUDIKAZIOKO HAINBAT IRIZPIDEREN ARABERA KONTRATATZEKO ESPEDIENTEARI.

Azterturik “A-1 Okendo Interbentzio Urbanistikorako Arean udaletxea berritzeko eta handitzeko” obrak kontratatze aldera tramitaturiko espedienteak, zeinen aurrekontua hamaika milioi ehun eta hirurogeita bat mila zortziehun eta laurogeita hamasei euro eta berrogeita hemeretzi zentimokoa baita (11.161.896,59.-€), BEZa barne (9.622.324,65.-€+ 1.539.571,94.-€).

Ikusirik “A-1 Okendo Interbentzio Urbanistikorako Arean udaletxea berritzeko eta handitzeko” obren kontratazioko espedienteetan jasoak dauden Klausula Administratiboen Agiria eta Proiektu Teknikoa.

Ikusirik ezen udalean indarrean dagoen aurrekontuan badagoela horretarako diru-izendapena, “Udaletxe Berria” izeneko 10802622201 121.00 kontu-sailean.

Ikusirik ezen obra hori hainbat urterako dela, eta 2008ko, 2009ko eta 2010eko aurrekontuen kargura gauzatuko dela obra.

Ikusirik ezen Proiektu Teknikoari aldeko irizpena eman diola Obretako, Hirigintzako eta Hiri-Kudeaketako Batzordeak, Udalbatzarrari onets dezala proposatuz.

Ikusirik gaiari buruz Hirigintzako Teknikariak eginiko txostena, aplikatzekoa zaion legediari dagokionez.

Bozkatzera jarrita, Udalbatzarrak, aldeko zortzi botorekin (7 PSE-EE-PSOE, 1 EB), kontrako hiru botorekin (2 EAJ-PNV, 1 EA) eta bi abstentziorekin (1 LOHP, 1 PP), hurrengo erabaki hauek hartu ditu:

- Lehenik.- Onestea konpromisoko kredituak aldatzeko espedienteak, jarraian zehazten den desglosamenduaren arabera:
- | | |
|------|-----------------|
| 2008 | 200.000,00.-€ |
| 2009 | 5.800.000,00.-€ |
| 2010 | 5.161.896,59.-€ |
- Bigarrenik.- Onestea “A-1 Okendo Interbentzio Urbanistikorako Arean udaletxea berritzeko eta handitzeko” obren kontratazioko espedienteak.
- Hirugarrenik.- Adjudikazioko prozedura gisa, prozedura irekia, eskaintza ekonomikoki onuragarrienaren arabera eta adjudikatzeko hainbat irizpideren arabera onestea.
- Laugarrenik.- Onestea lizitazioa arautuko duten Klausula Administratibo Partikularren Agiria.
- Bosgarrenik.- Adjudikatzeko prozeduraren abiatzea erabakitzea, kontratua formalizatzen

den arteko tramite guztiak betez.

Seigarrenik.- Baimentzea hamaika milioi ehun eta hirurogeita bat mila zortziehun eta laurogeita hamasei euro eta berrogeita hemeretzi zentimoko gastua (11.161.896,59.-€), BEZa barne (9.622.324,65.-€ + 1.539.571,94.-€), “Udaletxe Berria” izeneko 10802622201 121.00 kontu-sailaren kargura, lehen puntuko desglosamenduaren arabera.

Zazpigarrenik.- Lizitazioa Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean, Estatuko Aldizkari Ofizialean eta Probintziako Aldizkari Ofizialean iragartzea.